

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2021eko maiatza

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. Inguruneko hazkundera
6. Sentimendu ekonomikoa
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,9 jaitsi zen aurtengo lehen hiru hilabeteetan.

Hiruhileko arteko tasa %0,2 hazi zen, Europan izandako jaitsieraren aldean.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioak %0,9 egin du gora apirilean.

Eraikuntza eta zerbitzuak hasi dira galdutako enplegua berreskuratzeko.

3. Langabeziak behera egin zuen apirilean, krisia hasi zenetik lehen aldiz.

Jaitsiera bi generotan gauzatu da, baina bereziki gizonen artean.

4. 2020ko urtariletik izan duen mailarik gorenera igo da KPI indizea.

Garestitze horren atzean produktu energetikoak daude.

5. Munduko ekonomia pandemiatik suspertzen hasi da.

AEBek eta Frantziak urte arteko tasa positiboak berreskuratu dituzte.

6. Baikortasuna oso nabarmen areagotu da Europako herrialdeetan.

Sentimendu ekonomikoaren indizea 110 puntutik gorakoa izan zen apirilean.

7. Hilabeteko laburpena.

Apirilak susperraldiaren hasiera ekarri du.

EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA


EAEko ekonomia %2,9 jaitsi zen aurtengo lehen hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA
Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO BPGA

1. HIRUHILABETEA

-%2,9



Eustatek urteko lehen hiruhilekorako kontu ekonomikoen aurrerapena argitaratu du, eta jardue-
ra ekonomikoaren beherakada, urte arteko tase-
tan, %2,9an zenbatetsi du. Datu hori bat dator
oraindik ere osasun ziurgabetasun handiegiare-
kin (hirugarren olatuaren kutsatze maximoa
otsailaren erdialdean gertatu zen) eta urteko le-
hen hilabeteetan izandako txertaketa erritmo
txikiarekin. Hala eta guztiz ere, aurreko bi hiruhi-
lekoetan izandako jaitsierekiko hobekuntza ia

bost puntukoa izan da. Bestalde, erregistro hori
ez da asko urruntzen Eusko Jaurlaritzak egindako
aurreikuspenetik, lehen hiruhilekoan %2,5eko
beherakada iragarri baitzen.


Hiruhileko arteko tasetan, EAEko BPGa %0,2 hazi
zen, aurreko biak baino aurrerapen apalagoa,
baina hazkunde positiboaren segidako hirugarren
hiruhilekoa da, eta horrek garrantzi handiagoa
hartzen du kontuan hartzen badugu European
tasa hori negatiboa izan zela.

BARNE PRODUKTU GORDINA
Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO BPGA

1. HIRUHILABETEA

%0,2




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA

1. HIRUHILABETEA

-%2,1



Lan merkatuari dagokionez, enpleguari buruzko datuek BPGarenek baino bilakaera zertxobait positiboagoa erakusten dute, joera bera erakusten duten arren. Zehatzago esanda, enpleguaren uzkurdura, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, %2,1 jaitsi zen, 2020. urtearen amaieran jaso zuen %6,3ko beherakadaren aldean. Datu hori ere ez dator bat Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egindako aurreikuspenarekin, kasu honetan enplegua %2,5 uzkurtzea aurreikusten baitzuen. Hiruhileko arteko datuei

dagokionez, enpleguak %0,5 egin zuen gora, hazkunde handia baita, 2020ko laugarren hiruhilekoan izandako aldakuntza hutsalaren ondoren.

Printzipioz, aurreikuspenen arabera, EAEko ekonomiak aparteko igoerak izango ditu aurtengo bigarren hiruhilekoan, bai BPGari dagokionez bai enpleguari dagokionez. Hala ere, laugarren olatuaren eraginak susperraldi hori atzeratu dezake edo beraren intentsitatea moteldu.


ENPLEGUA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA

1. HIRUHILABETEA

%0,5



Iturria: Eustat



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioak %0,9 egin du gora apirilean

Gizarte Segurantzako afiliazioen kopuruak %0,9 egin zuen gora apirilean, 2020ko hilabete berarekin alderatuta, eta 957.660 afiliazio daude gaur egun. Urte arteko lehen igoera izan da 2020ko martxotik, pandemia kontrolatzeko murrizketak hasi zirenetik. Hala ere, erregistro hori aurreko urteetan ezagututakoak baino txikiagoa da. Hala, 2019ko apirilean 963.089 afiliazio erregistratu ziren, beraz, oraindik ez dira birusa iritsi aurreko

balioak berreskuratu.

Afiliazioen gorakadak antzeko onurak ekarri dizkie bi generoei. Izan ere, %1,0 igo da gizonen artean eta %0,8, berriz, emakumeen artean. Afiliazio igoera hori bezain garrantzitsua da ABEE batean dauden pertsonen kopuruak behera egin izana: martxoan 29.700 ziren, hileko batez bestean, eta apirilean 25.500. Duela urtebete, kopuru hori 103.300 pertsonakoa izatera iritsi zen.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

APIRILEKO AFILIAZIOA


+%0,9



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Sektorearen ikuspegiaren arabera, industria da oraindik ere afiliazioen beherakada handiena pairatzen ari den sektorea, nahiz eta beherakadaren erritmoa azkar leuntzen ari den. Aitzitik, eraikuntzak %3,9 handitu zituen bere erregistroak, eta zerbitzuek, berriz, %1,3ko urte arteko igotera igo zuten.

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Jarduera adarren arabera, gero eta gehiago dira 2020an galdutako afiliazioak berreskuratzen hasi direnak, nahiz eta manufakturetan, ostalaritzan eta beste zerbitzu batzuetan beherakada handiak jaso diren oraindik. Aitzitik, jarduera administrazioak eta zerbitzu osagarrietan nabarmen igo ziren (%8,8).

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2020ko apirila	2021eko apirila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	948.970	957.660	9.690
Industria manufakturagileak	171.345	168.275	-3.070
Merkataritza	133.716	134.165	450
Osasun arloko jarduerak	107.373	107.438	65
Hezkuntza	73.832	76.507	2.674
Administrazio jarduerak	60.638	65.953	5.315
Ostalaritza	63.442	60.966	-2.476
Lanbide jarduerak	56.250	58.003	1.753
Eraikuntza	54.758	56.885	2.127
Administrazio publikoa	49.039	50.042	1.003
Garraioa	41.223	42.328	1.106
Etxeko langileak	28.950	29.050	100
Bestelako zerbitzuak	27.342	25.937	-1.405
Informazioa eta komunikazioa	22.896	23.981	1.085
Finantza jarduerak	17.430	17.192	-238
Jarduera artistikoak	16.107	16.000	-108
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	12.268	12.268	0
Or horniketa	6.120	6.334	214
Higiezin jarduerak	4.120	4.164	44
Energia horniketa	1.513	1.560	47
Erauzketa industriak	553	541	-12
Lurraldez kanpoko erakundeak	56	72	15

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabeziak behera egin zuen apirilean, krisia hasi zenetik lehen aldiz


Apirileko datuak benetan positiboak izan ziren: 126.982 langabe zeuden guztira, hau da, aurreko hilean baino 12.000 langabe gutxiago, eta urte arteko aldakuntza-tasa - %8,4koa izan zen. Hala eta guztiz ere, lan merkatuan gaur egun aurreko urteko datuekin egiten den edozein alderaketa apur bat desitxuratuta dago, egoera pandemikoak orduko eta oraingo balioak baldintzatzen baititu. Balorazioa egungo krisia hasi zenetik egiten bada,

nabarmentzekoa da urte arteko tasaren beheranzko joera etengabea, batez ere abuztutik aurrerakoa, azken hilekoan langabeen kopurua aurreko urtekoa baino txikiagoa izatera iritsi arte. Langabeziaren bilakaera on horri mugagabe bihurtutako kontratuetan izandako igoera gehitu behar zaio, berriki erregularizazio ikuskapenak egin ondoren.


LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. APIRILA


-%8,4



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Sexuaren araberako langabeziaren banaketari dagokionez, hilabete batzuetan emakumeen kolektiboaren portaera positiboagoa izan ondoren, funtsezko sektoreak feminizatuago daudelako, apirilean gizon langabeen beherakada handiagoa izan zen, %10,1 jaitsi baitzen, eta emakumeena, berriz, %7,0. Sexuaren araberako azterketan bezala, adinaren araberako banaketan ere aldeak izan ziren, eta oraindik adin txikieneko biztanleak dira langa-

beziak gehien kaltetu dituenak, nahiz eta egia den aldeak murrizten joan direla. Azkenik, sektoreen artean, ezaugarri komuna izan zen sektore guztiguztietan gertatu zen beherakada nabarmena, eta nabarmentzekoa da industria sektorearen bilakera ona, nahiz eta azken ABEEak erregistratu, bai eta zerbitzuena ere, ostalaritzak murrizketa handiak izan dituen arren.

LANGABEAK

	2020ko apirila	2021eko apirila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	138.643	126.982	-11.661
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	23.403	21.633	-1.770
Bizkaia	78.061	71.639	-6.422
Gipuzkoa	37.179	33.710	-3.469
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	62.705	56.386	-6.319
Emakumeak	75.938	70.596	-5.342
25 urtetik beherakoak	10.694	10.887	193
25 urte baino gehiago dutenak	127.949	116.095	-11.854
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.764	2.741	-23
Industria	16.730	14.586	-2.144
Eraikuntza	9.475	8.246	-1.229
Zerbitzuak	94.462	85.061	-9.401
Lehenago lan egin dutenak	123.431	110.634	-12.797
Lehenago lan egin ez dutenak	15.212	16.348	1.136
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	22.499	20.712	-1.787

Iturria: SEPE.

INFLAZIOA

2020ko urtariletik izan duen mailarik gorenera igo da KPI indizea

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



KPI indizea %1,4 igo zen martxoan urte arteko tasan, hau da, otsailean baino puntu bat eta hamarren bat gehiago, argindarrak eta erregaiek izan zuten garestitzearen ondorioz. Martxoa tasa positiboak izan dituen hirugarren hilabetea izan da, eta koronabirusaren pandemiak, duela urtebete bat hasi zen prozesu batean, prezioak egonkortu eta gero.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	1,4	1,4
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	0,5	0,4
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	0,2	0,1
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	5,4	1,0
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	2,4	0,2
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	8,4	0,8


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Igoera azkar hori, 2017. urtearen hasieratik hila-bete batean lortu den handiena baita, erregaien, berokuntzarako gasolioaren eta elektrizitatearen garestitzearen prezioek gora egin izanak eragin zuen, lehen aipatu den bezala; 2020ko martxoan, berriz, guztiek nabarmen murriztu zituzten prezioak, jarduera ekonomikorik ez zegoelako, alarma egoeraren ondorioz. Hala, igoeran eragin handiena izan zuten taldeak osagai horiekin lotura handiena dutenak izan ziren, hala nola etxebizitzarena eta garraioarena, biak ere %4,2ko tasarekin.

Aitzitik, eragin negatibo handiena izan duten taldeen artean, komunikazioena nabarmendu behar da, -%4,8ko aldakuntza erregistratu baitzuen, otsailean baino ia puntu eta erdi gutxiago, telefonía zerbitzuen prezioak hilabete honetan egonkor mantendu zirelako, iaz ez bezala, orduan igo egin baitziren. Era berean, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien multzoak ere behera egin zuen, zehazki, hiru hamarren, eta %1,9an kokatu zen, arrainaren prezioak behera egin zuelako.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,4	1,3	1,3
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,9	1,4	0,7
Edari alkoholodunak eta tabakoa	0,4	0,0	2,7
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,1	-1,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	4,2	4,3	1,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,7	0,6	0,8
Osasuna	0,9	0,6	0,2
Garraioa	4,2	3,8	3,5
Komunikazioak	-4,8	-4,9	-1,7
Aisia eta kultura	-0,4	-0,2	1,7
Hezkuntza	0,6	-0,2	0,1
Jatetxeak eta hotelak	0,3	0,0	0,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,3	0,8	1,7


Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Munduko ekonomia pandemiatik suspertzen hasi da

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPG-A
1_{GO} HIRUHILABETEA
% 18,3



Txinako BPGak %18,3 hazi zen 2021eko lehen hiruhilekoan. Tasa horrek errekor bat markatu du 2020ko lehen hiruhilekoarekin alderatu delako. Garai hartan Txinak herrialdearen zati handi bat itxi zuen birusari eusteko eta horren ondorioz behar-kada historikoa pairatu zuen herrialdeak. Aurtengo hiruhilekoan, industria sektorea izan da dinamikoena, %24,4ko gorakada nabarmenarekin, eta, ondoren, zerbitzuen sektorea (%15,6) eta lehen sektorea (%8,1), azken bi urteetan jasotako batez besteko hazkundearen oso gainetik kokatu baitira tasa horiek.

AEBetako BPG, bestalde, %0,4 hazi zen 2021eko


lehen hiruhilekoan, iazko epe berarekin alderatuta, hau da, krisia hasi zenetik datuak izan duen urte arteko lehen hazkunde da. Kontsumo pribatuak, bederatzi hilabetez etengabe uzurtu ondoren, hazkunde positiboekin ekin zuten berriro, neurri handi batean inbertsio pribatuaren gehikuntza handiak bultzatuta, batez ere egoitzetako inbertsioarenak.

Europar, nahiz eta urteko lehen hiruhilekoan COVID-19ari eusteko murrizketak mantendu eta txertaketa erritmoa motel samarra izan, Europako ekonomia nagusiek erresilientzia handiagoa erakutsi zuten pandemiaren aurrean.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa

AEBETAKO BPG-A
1_{GO} HIRUHILABETEA
%0,4



EUROPAR BATASUNA 27EN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



Zehazki, 2021eko lehen hiruhilekoan Europar Batasunak %1,7ra murriztu zuen bere jaitsiera tasa. Orain arte argitaratutako datuen arabera, hobekuntza hori inguruko herrialde guztietara zabaldutako zen, eta Frantzia nabarmendu zen gainerakoen gainera. Zehazkiago, beraren BPGA %1,5ean kokatu zen, inbertsioaren gorakada handiak bultzatuta, pandemia aurreko mailak berreskuratzetik gertu baitago. Beste muturrean Alemania dago. Alemania ere zertxobait hobetu zen, baina deprimetuta jarraitzen du (-%3,0), eta 2020aren amaieran erregistratutako mailaren oso antzekoa izanda (-%3,3). Gainerako ekonomia nagusiei dagokionez, Italiak %1,4 egin zuen behera, Espainiak, berriz, %4,3 eta Portugalak %5,4. Alemanian ez bezala, guztiek nabarmen hobetu dituzte beren erregistroak 2020ko azken hiruhilekoarekin alderatuta.


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ITALIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE, BEA, Eurostat eta INE.




EKONOMIA SENTIMENDUA

Baikortasuna oso nabarmen areagotu da Europako herrialdeetan

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

APIRILEKO DATUA


110,3




Europako Batzordeak apirileko sentimendu ekonomikoaren datuak argitaratu ditu, eta martxoan antzematen zen konfiantzaren susperraldia hurrengo hilabetean indartu egin dela egiaztatu da. Hain zuzen ere, euroaren eremu osoan adierazle hori 100,9 izatetik, hots, batez bestekoa (100,0) baino pixka bat gehiago bakarrik izatetik, 110,3 izatera igaro da, 2018tik ikusten ez zen maila baita. Oro har, adierazlearen bost osagaietan hobetu da sentimendua, nahiz eta zerbitzuetako igurikimenak oraindik ere beren

batez besteko historikoaren azpitik dauden. Aitzitik, industriaren balioa serie honen hasieratik (2000. urtea) erregistratutako handiena da. Konfiantzaren itzulera Europako herrialde nagusi guztietan antzematen da. Esate baterako, Alemaniak 109,4ra arte igo du bere indizea, industrian ere errekorra lortuz eta nolabaiteko atzerapena zerbitzuak eta kontsumitzailearen konfiantzan. Bestalde, Frantziak 104,7 puntuko maila lortu du, eraikuntzan eta industrian posizio ona edukita.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Espainiako bilakaera ere oso ona izan da, bederatzi puntu hobetu baita hileko bakar batean, 106,0ra iritsi arte. Kasu honetan, industriak eta eraikuntzak indar handia hartu dute eta txikizkako merkataritzak eta zerbitzuek hobekuntza handia izan dute, haien batez besteko baliora azkar hurbiltzen ari baitira. Italiak bost puntuko hobekuntza lortu du, 104,8ra arte. Herrialde horretan, zerbitzuek irudi ezkorra ematen dute oraindik, nahiz eta azken hilabeteetan hohera egin duten.

Adierazle horretan bilakaera onena izan duten herrialdeetako bat Herbehereak dira: martxoan 97,9 izan ziren, eta apirilean 108,6, hamar puntu baino gehiagoko hobekuntzarekin. Industrian eta eraikuntzan une ona ikusten da, baina txikizkako merkataritzan ahultasuna. Azkenik, Belgika hilabete horretan lortutako emaitza onagatik nabarmentzen da (114,8), industrian errekorra lortuz eta zerbitzuetan posizio ona lortuz, batez besteko balioaren gainetik nabarmen. Gainerako atalek ere baikortasuna erakusten dute.


SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



SENTIMENDU EKONOMIKOA. HERBEHEREAK



SENTIMENDU EKONOMIKOA. BELGIKA



Iturria: Europar Batzordea.



Apirilak susperraldiaren hasiera ekarri du

Hilabete honetan lehen hiruhilekoko aldagai ekonomikoekin zerikusia zuten argitaratutako informazioak zalantza izpi bat utzi zuen susperraldi ekonomikoaren etorrerari buruz. Hala eta guztiz ere, apirilaz dakigunak itxura baikorra erakusten du. Zehatzago adierazita, Europako ekonomien kontu ekonomikoen aurrerapenen arabera, **aurtengo lehen hiruhilekoan hiruhileko arteko tasa negatiboak izan dira Europar Batasun osoan eta herrialde nagusietan**, nahiz eta urte arteko beherakadak aurreko aldietakoak baino nabarmen txikiagoak izan. Europako herrialdeen artean, salbuespena Frantzia izan zen, urte arteko aldakuntza tasa %1,5 izan baitzen, Alemaniako (-% 3,0), Italiako (-% 1,4) eta Espainiako (-% 4,3) erregistro negatiboan aldean.

Baina bigarren hiruhilekoaren hasieran albiste on batzuk iristen hasi dira, baikortasunaren itzultzea iradokitzen dutenak, txertaketaren aurrerapenei eta murrizketak laster kenduko direlako iritzia lotuta. Hala, **PMI indize konposatuak, ekonomiaren adierazle aurreratu gisa hartzen baita, une ona erakusten du apirilean**, bai eurogune osoan (53,8), bai herrialde nagusietan: Alemania (55,8), Espainia (55,2), Frantzia (51,6) eta Italia (51,2). Espainiaren kasuan, azken bi urteetan erregistratu den mailarik altuena da apirilekoa, manufakturen sendotasunari (57,7) eta zerbitzuen susperraldi azkarrari esker, martxoan 48,1 ezkorizatetik apirilean 54,6 bikain izatera igaro baitira.

Antzeko terminoetan kokatu dira Europako Batzordearen **sentimendu ekonomikoaren datuak, eta indartsu igo dira 110,3ra arte eurogune osoan, herrialde guztiak beren batez besteko historikoaren gainetik daudela**. Oraindik ere, atzerapen txiki bat dago zerbitzuen berreskurapenean, baina hori aise konpentsatzen da gainerako atalen sasoi onarekin. Nabarmentzekoa da industriarena, bere serie historikoan errekorreko egoeran baitago. Estatistika horren arabera, etxeetan baikortasuna dago gaur egun eta txikizkako merkataritzak igurikimen onak ditu.

EAEko ekonomiari dagokionez, apirilak **Gizarte Segurantzako afiliazioen datuak ekarri dizkigu, azken urteko urte arteko lehen igoerarekin (%0,9)**. Egia da tasa positibo horrek hamabi hilabeteko jaitsiera bala bati amaiera ematen diola, baina kontuan izan behar da asko falta dela pandemia baino lehen zegoen afiliazio mailara itzultzeko. Estatistika horren osagarri, azpimarratu behar da ABEE batean dauden pertsonen kopuruak behera egiten jarraitzen duela, eta apirilean 25.500 inguru zirela egoera horretan zeudenak, aurreko urtean kopuru hori halako lau zen bitartean.

Azkenik, langabezia erregistratuak ere emaitza ona izan zuen apirilean, urte arteko %8,4ko jaitsierarekin, pandemia hasi zenetik lortu den lehen beherakada baita. **Une honetan, 127.000 pertsonak eman dute izena Lanbideren bulegoetan, hau da**, duela urtebete baino 11.700 gutxiagok. Espero izatekoa da hasi berri den aldeko joera horrek jarraipena izango duela datozen hilabeteetan. Bide horretan, garrantzi handia izango du lan kontratuak sinatzeak; izan ere, aurtengo apirilean bikoiztu egin ziren iaz erregistratutakoak, baina ez ziren iritsi pandemia baino lehen sinatzen ziren guztizkoetara.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
BPG	2,2	-9,5	-3,2	-19,5	-7,5	-7,6	-2,9
Barneko azken kontsumoa	1,9	-7,5	-3,0	-15,4	-5,9	-5,7	—
Familien kontsumoa	1,8	-10,7	-4,8	-20,3	-8,5	-9,1	—
Administrazioaren kontsumoa	2,2	4,5	4,1	3,0	3,6	7,2	—
Kapital eraketa gordina	3,3	-11,6	-3,6	-23,0	-11,4	-8,4	—
Barne eskaria	2,2	-8,5	-3,1	-17,2	-7,2	-6,4	—
Esportazioak	0,4	-17,1	-7,5	-30,1	-15,5	-14,8	—
Inportazioak	0,4	-15,3	-7,2	-26,4	-14,8	-12,7	—
Lehen arloa	3,2	-9,3	3,5	-6,1	-7,2	-26,3	—
Industria eta energia	1,3	-11,8	-3,6	-26,7	-9,5	-7,2	—
Eraikuntza	3,4	-9,5	-2,7	-17,9	-9,3	-8,2	—
Zerbitzuak	2,5	-8,5	-2,8	-17,5	-6,5	-7,1	—
Balio erantsi gordina	2,3	-9,3	-3,0	-19,6	-7,4	-7,4	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,2	-10,4	-5,1	-18,4	-8,5	-9,6	—
Enplegua	1,5	-8,1	-2,8	-17,2	-6,2	-6,3	-2,1

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021				2021	2022
	I	II	III	IV		
BPG	-2,5	17,8	5,9	7,3	6,7	5,7
Barneko azken kontsumoa	-1,6	15,2	4,8	7,2	6,1	4,8
Familien kontsumoa	-3,3	19,1	5,3	8,6	6,9	5,8
Administrazioaren kontsumoa	4,2	4,0	2,9	2,5	3,4	1,9
Kapital eraketa gordina	-2,9	23,1	9,3	7,0	8,4	6,4
Barne eskariaren ekarpena	-2,0	18,1	6,0	7,3	6,8	5,4
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,5	-0,3	-0,2	0,0	-0,1	0,3
Lehen arloa	2,5	8,2	0,5	9,2	4,9	8,2
Industria	-2,1	27,2	5,1	7,0	8,3	5,3
Eraikuntza	-2,7	14,8	5,6	7,3	5,9	5,0
Zerbitzuak	-2,7	15,9	6,3	7,5	6,4	5,8
Balio erantsi gordina	-2,5	18,2	5,9	7,3	6,8	5,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-2,4	13,8	5,7	7,4	5,9	5,8
Lanaldi osoko lanpostuak	-2,5	14,3	3,4	4,4	4,9	3,2
Landunak (BJA)	-1,9	3,0	2,9	1,9	1,5	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	—	Funcas	6,1	—
Hispalink (BEGren aldak.)	7,0	—	CEPREDE	6,0	5,5
Laboral Kutxa	7,0	—	BBVA	5,3	7,5

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
BPG	2,0	-10,8	-4,3	-21,6	-8,6	-8,9	-4,3
Kontsumo pribatua	0,9	-12,4	-6,1	-24,7	-9,3	-9,4	-4,0
Kontsumo publikoa	2,3	3,8	3,5	3,3	4,0	4,5	3,8
Kapital finkoaren eraketa gordina	2,7	-11,4	-5,1	-24,3	-9,0	-7,2	-4,2
- Aktibo finko materialak	2,7	-13,3	-6,8	-27,9	-10,0	-8,3	-5,2
- Eraikuntzan	1,6	-14,0	-6,3	-25,4	-12,5	-11,5	-12,5
- Ekipamendu ondasunetan	4,4	-13,0	-8,0	-33,3	-6,9	-4,2	5,6
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,6	-1,7	3,6	-5,5	-3,7	-1,2	0,6
Nazio eskaria (ekarpena)	1,4	-8,8	-4,0	-18,4	-6,7	-6,2	-2,6
Esportazioak	2,3	-20,2	-5,8	-38,7	-19,8	-16,3	-9,5
Inportazioak	0,7	-15,8	-5,3	-32,6	-15,7	-9,4	-5,2

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
AFI	6,4	5,8	IEE	4,5	5,7
Axesor	5,6	5,4	Intermoney	6,7	4,5
BBVA	5,5	7,0	Mapfre Economics	6,1	6,3
Bankia	5,7	6,2	Repsol	5,7	5,2
CaixaBank	6,0	4,4	Santander	6,0	7,0
Cámara de Comercio España	5,9	4,5	Metyis	4,5	5,5
Cemex	5,5	7,0	Universidad Loyola Andalucía	5,6	5,2
CEEM-URJC	6,2	5,0	Consenso (batez bestea)	5,9	5,6
CEPREDE-UAM	8,5	5,7	Gobernua (2020-10)	7,2/9,8	—
CEOE	5,4	6,2	Espainiako Bankua (2021-03)	5,3	1,7
Equipo Económico (Ee)	6,5	4,2	Europar Batzordea (2021-02)	5,6	5,3
FUNCAS	5,7	6,3	NDF (2021-04)	6,4	4,7
ICAE-UCM	5,6	5,8	Consensus Forecast (2021-04)	5,5	5,7

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2019	2020	2020				2021
			I	II	III	IV	I
AEB	2,2	-3,5	0,3	-9,0	-2,8	-2,4	0,4
Txina	6,1	2,0	-6,8	3,2	4,9	6,5	18,3
Japonia	0,3	-4,9	-2,1	-10,3	-5,8	-1,3	—
Kanada	1,9	-5,4	-0,3	-12,7	-5,3	-3,2	0,3
Europar Batasuna	1,6	-6,2	-2,7	-13,8	-4,0	-4,6	-1,7
Eurogunea	1,3	-6,6	-3,3	-14,6	-4,1	-4,9	-1,8
Alemania	0,6	-4,9	-2,2	-11,2	-3,8	-3,3	-3,0
Frantzia	1,5	-8,1	-5,6	-18,6	-3,7	-4,8	1,5
Erresuma Batua	1,4	-9,9	-2,2	-21,4	-8,5	-7,3	—
Italia	0,3	-8,9	-5,8	-18,1	-5,2	-6,6	-1,4
Herbehereak	1,7	-3,7	-0,4	-9,1	-2,4	-3,0	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2021EKO APIRILA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
AEB	6,2	4,1	2,6	2,3	5,4	4,2
Japonia	2,8	2,4	0,0	0,5	3,0	2,8
Kanada	5,9	3,8	2,2	2,0	7,6	6,4
Europar Batasuna	4,0	4,1	1,6	1,4	—	—
Eurogunea	4,2	4,3	1,6	1,3	8,6	8,3
Alemania	3,3	4,1	2,1	1,6	5,9	5,5
Frantzia	5,3	3,9	1,2	1,1	9,1	8,9
Erresuma Batua	5,4	5,6	1,6	2,1	5,9	5,8
Italia	3,9	4,1	1,1	1,0	10,5	10,3
Espainia	5,5	5,7	1,2	1,2	—	—
Herbehereak	2,6	3,2	1,7	1,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.